

Grekoa II

- BATXILERGOA
- LANDIBE HEZIKETA
- GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Azterketa

Kalifikazio eta zuzenketa irizpideak



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKANTASUN
CAMPUSA

CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jarri behar duzula.

A AUKERA

Itzuli testu hau, eta erantzun galderei:

Lisias, *Eratostenesen heriotzaren defentsan*, 22-23

Sostratorekin elkartzea.

Καὶ μετὰ ταῦτα διεγένοντο ἡμέραι τέτταρες ἢ πέντε πρῶτον δὲ διηγήσασθαι βούλομαι τὰ πρᾶχθέντα τῇ τελευταίᾳ ἡμέρᾳ. Σώστρατος ἦν μοι ἐπιτήδειος καὶ φίλος. τούτῳ ἡλίου δεδυκότος ἰόντι ἐξ ἀγροῦ ἀπήνησα.

Galderak

1. Esaldi honen analisi sintaktikoa: πρῶτον δὲ διηγήσασθαι βούλομαι τὰ πρᾶχθέντα τῇ τελευταίᾳ ἡμέρᾳ.
2. Aditz honen analisi morfologikoa: πρᾶχθέντα. Joka ezazu aditz hori indikatiboko aoristoan (aktiboan).
3. Hitz honen analisi morfologikoa: τούτῳ. Izenordain horren singularreko deklinabidea.
4. Azaldu itzazu termino honen esanahia eta etimologia: ἀγροῦ. Termino horrekin erlazioa duten gaztelaniazko eta euskarazko hitzak.
5. Lirika grekoa: poeta liriko nagusiak.
6. Euripidesen *Medea*: obraren amaiera.



B AUKERA

Itzuli testu hau, eta erantzun galderei:

Apolodoro, *Epitomea* VII, 24

Odiseo eta Kalipso

Ἐκεῖ δὲ ἀποδέχεται Καλυψὼ¹ θυγάτηρ Ἄτλαντος, καὶ συνευνοασθεῖσα γεννᾶ παῖδα Λατῖνον². μένει δὲ παρ' αὐτῆ πενταετίαν, καὶ σχεδίαν ποιήσας ἀποπλεῖ. ταύτης δὲ ἐν τῷ πελάγει διαλυθείσης ὄργῃ Ποσειδῶνος.

Galderak

1. Esaldi honen analisi sintaktikoa: Ἐκεῖ δὲ ἀποδέχεται Καλυψὼ θυγάτηρ Ἄτλαντος, καὶ συνευνοασθεῖσα γεννᾶ παῖδα Λατῖνον.
2. Aditz honen analisi morfologikoa: διαλυθείσης. Joka ezazu aditz hori indikatiboko aoristoan (pasiboan).
3. Hitz honen analisi morfologikoa: πελάγει. Izen horren singularreko deklinabidea.
4. Azaldu itzazu termino honen esanahia eta etimologia: παῖδα. Termino horrekin erlazioa duten gaztelaniazko eta euskarazko hitzak.
5. Aristofanesen komedia.
6. Euripidesen *Medea*: obraren eszenarik adierazgarrienak.

¹ "Kalipso" izenaren nom. sing.

² "Latino" izenaren ak. sing.



GREKOA II

1. Grekozko testua gaztelaniara edo euskarara itzultzeari (hiztegiarekin) 0 puntutik 5era bitarteko kalifikazioa emango zaio. Hauek balioetsiko dira: testuaren esanahia ulertzea, grekoaren gramatika-egiturak ulertzea, gaztelaniaz edo euskaraz zuzen adieraztea, eta, ahal den neurrian, egitura horiei eustea itzulpenean.
2. Proposatutako esaldiaren analisi sintaktikoari 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta analisisian eta itzulpenean akats bera errepikatuz gero behin bakarrik hartuko da kontuan kalifikazioa jaisteko.
3. Aditz-morfologiaren galderari 0 puntutik 0,5era bitarteko balorazioa emango zaio; 0,25eraino morfologia-analisi zuzena egiteagatik, eta 0,25eraino proposatutako formak jokatzegatik.
4. Izen-morfologiaren galderari 0 puntutik 0,5era bitarteko balorazioa emango zaio; 0,25eraino morfologia-analisi zuzena egiteagatik, eta 0,25eraino eskatzen den deklinabidea idazteagatik.
5. Lexikoari buruzko galderari ere 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio; 0,5eraino proposatutako hitzaren etimologia eta esanahia emateagatik, eta 0,5eraino hitz horrekin erlazioa duten gaztelaniazko edo euskarazko hitzak (lau, gutxienez) aipatzeagatik.
6. Greziari eta haren ondareari (greziar literatura) buruzko galderari 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio; 0,5eraino literatura-generoaren oinarri nagusiak azaltzeagatik, eta 0,5eraino proposatzen den egile edo gaiari buruz idazteagatik.
7. Irakurtzeko proposatutako obrei buruzko galderari 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio; puntuazioak obrak benetan irakurri diren ala ez islatuko du.